



GOIZIAN GOIZ JEIKIRIK



Doinu mota: Erromantzea.

Doinuaren jasotzailea: Aita Donostia.

Non jaso: Sara (Lapurdi), XIX. mendea.

Koplaren berri

Kopla sortak azaltzen du 16 urteko neska batek pasatzen duen estuasuna, pitxarrarekin ur bila doanean iturrira. Aita leihotik begira duela, bidera mutil gazte bat agertzen zaio kortejatzerara; neskak ezetz esanagatik errekarra laguntzen du eta, amaieran, etxean zer-nola kontatu beldur da neska.

Goizian goiz jeikirik argia **gaberik**
urera joan ninduzun, pegarra **harturik**

trala la la la, trala la la la, trala la, lara la la
urera joan ninduzun, pegarra **harturik**.





GURE ELIZ DORREKO



Doinuaren sortzailea: Mixel Labegerie.
Kopla honen egilea: Piarres Lartzabal.

Koplaren berri

“Ezkilaren kantua”k azaltzen du elizako kanpaiak, aitatziren bizitzan, zer berri emateko jo izan duen dilin, dalan, dalan: aitatziren bataioan, ezkontza egunean, gerran armetara deitzeko eta, gerra galdurik eta aitatxi zerraldo, hileta egunean. Kantuak bizitzarako deia egiten du amaieran, haur ttipi bat sortu baita: “Kanta beza ezkilak menderen mendetan! / Kanta beza bizia Euskal herrietan!”

Gure eliz dorreko ezkila **zaharrak**
badauka hedaturik berrien **bakarrak.**





HONA BILDOTS EZTIA



Doinu mota: Eliz doinua.

Doinuaren jasotzailea: Bizente Aranburu.

Non jasoa: "Eliz Abesti Sorta" liburuan Aranburuk dionez, Ipar Euskal Herriko doinua da.

Koplaren berri

Mezako liturgian, koplak hauek abesten dira apaizak ogia edo ostia banatzeko unean.

Hona bildots eztiak egiatzko **ogia**
zerutik da jaxkia Jainko **maitea**

gure artzai ona ta **egilea**
aitarik maiteena zero **emailea.**





IRUTEN ARI NUZU



Doinuaren jasotzaileak:

Nehor et Dufau, J.D.J. Salaberry, Madame Villehelio.

Koplaren berri

Kopla sortak azaltzen du, haria irun bitartean, etengabe nigarrez ari den neskaren mina. Nigarrez ari da, baina ez maiteminez eta ez ezkondu nahiagatik.

Iruten ari nuzu kilua **gerrian (bis)**
ardura dudalarik (bis) nigarra **begian (bis)**.





SOLOZABALEN GAIA



Doinu mota: Protesta abestia.

Kopla honen egilea: Manex Agirre (1982 Aramaio, Araba). 2015ean Gasteizen.

Koplaren berri

Afroamerikar esklaboen himno espirituala eta protesta abestia da: "I Shall Not Be Moved", "We Shall Not Be Moved" izenez ere ezaguna, XIX. mendearen hasierakoa, Amerikako hegoaldetik datorrena. Joan Baezek egin zuen ezagun 1960. urte inguruan espainolezko "No nos moverán" bertsioan eta asko abestu zen Vietnamgo gerraren aurka eta antzeko mugimenduetan.

Espainiar telebistan "Verano Azul" telesailean "del barco de Chanquete no nos moveran" kantatzen zuten; doinuari horregatik deitu izan zaio izen horrekin ere.

**Solozabalen gaia
dugunez helburu
Chanqueteren doinuan
kantatuko dugu**

***lara larai lara lara larai la lai
kantatuko dugu.***





AXURI BELTXA ONA DUK BAINA



Doinu mota: Dantzarako doinua.

Doinuaren jasotzailea: R.M. Azkue.

Non jaso: Etxarri (Larraun, Nafarroa), XIX. mendean.

Koplaren berri

Bi koplatan dantza saio bat irudikatzen da; dantzan dakiena mintzo da, azalpenak ematen eta fin ari ez denari kargu hartzen.

**Axuri beltza ona duk baina
xuria berriz **hobea**,
dantzan ikasi nahi duen horrek
nere oinetara **begira**.**





OMENDU NAHIAN ETORRI GARA



Doinuaren jasotzailea: R.M. Azkue.

Kopla honen egilea: Jon Enbeita (1950 Muxika, Bizkaia).

Koplaren berri

Jon Enbeitak 1991. urteko Bertsolari Egunean kantatu zuen, Donostian.

Goierriko bi bertsolari omentzen ziren: Florentino Goiburu eta Patxi Iraola.

**Omendu nahian etorri gara
Goierriko bi txoriak
eurentzat dira gure eskerrak
eta txalo ugariak.**





ERRAN DUT ERRANEN TA ERRANGO



*Doinuaren jasotzailea: Piarres Lafitte.
Non jasoa: Zuberoan.*

Koplaren berri

Kopla sortak dionez, plaza honetako neska gazteak ez dira monja sartuko, mutil gazteak ez dira fraile sartuko, eta gazte guztiak dira ezkontzan sartuko.

Erran dut erranen ta errango ez naiz ixilik **egongo
plaza huntako dama gazteak ez dira monja **sartuko**.**





ARMEN HARTZERA DEITU NINDUEN



Doinu mota: Erromantzea.

Doinuaren jasotzailea: Aita Donostia.

Kopla honen egilea: uste denez, Joan Batista Elizanbururena da (1828-1891 Sara, Lapurdi).

1864an, Anton Abadiak Saran antolatutako sariketan, bigarren saria jaso zuen "Solferinoko itsua" kopla sortak. «A. Salaberry» ezizeneko autore batek aurkeztu zuen sorta, baina ikerlari askoren arabera J. B. Elizanbururena da.

Koplaren berri

"Solferinoko itsua" kopla sortan kontatzen da, lehen pertsonan, Solferinoko guduan (1859an, frantsesen eta austriarren arteko gerran) itsututako soldadu baten istorioa.

Koplak jarri zituen Elizanburu bera, apaiz ikasketak utzita, Frantziako armadan sartu zen eta kapitain izan zen. 1871an, Napoleon menderatua izan zenean, itzuli zen Sarara.

**Armen hartzera deitu ninduen gazterik zorte etsaiak
hurrundu nintzen herri alderat itzuliz usu begiak (bis).**





PSIKOLOGOAK DESKRIBATU NAU



Doinuaren sortzailea: Bob Marley. "No woman no cry".
Kopla honen egilea: Unai Iturriaga (1974 Durango, Bizkaia).

Koplaren berri

2003ko Bertso Egunean, afalostean, bertso jarriak abestu zituen Iturriagak eta, tartean, doinu hau plazaratu zuen, "No Unai no cry" leloa zeraman kopla sortaz.

Psikologoak deskribatu nau
euforiko **depresibo**
hala omen naiz: edo bi muxu
edo bestela **bi tiro.**





GARIA SALTZEN NENGOELARIK



Doinuaren jasotzailea: Oskorri taldea. "Katuen testamentua" diskoan argitaratua.

Koplaren berri

Kopla sortan azaltzen denez, Donostiako kalean, garia zenbatean saltzen duen galdetzen dio neska gazte batek. Saltzaileak erantzun, besteentzat hemezortzian dena berari hamabostean eskaintzen diola eta, hamabostean nahi ez badu, laztan baten truke.

Garia saltzen nengoelarik
Donostiako **kalian**
dama gazte bat etorri jatan
garia zegan **neukian.**





DOINUTEGIA


HIRU PUNTUKO KOPLAK




Hiru puntuko txikia (ip)



Kopla handia, hiru puntuz (ip)




Hiru puntuko berdina (ip)



Seiko txikia (hg)



Kopla handia, hiru puntuz (hg)



Lauko berdina, hiru puntuz eta zortzi silabaz (hg)



DOINUAK



urratsak
2

Bertsuak jarri dizkat. Hiru puntuko txikia (ip) / Seiko txikia (hg)

Oihaneko pagoak blai. Kopla handia, hiru puntuz



urratsak
3

Estutzen ez bagaitu. Hiru puntuko txikia (ip) / Seiko txikia (hg)

Isildu zaigu eguna. Kopla handia, hiru puntuz

Hemen gezurra nagusi. Hiru puntuko berdina (ip) / Lauko berdina, hiru puntuz eta zortzi silabaz (hg)

Pertsiana zabaltzean. Hiru puntuko berdina (ip) / Lauko berdina, hiru puntuz eta zortzi silabaz (hg)



BERTSUAK JARRI DIZKAT



Doinuaren sortzailea: Amaia Zubiria.

Koplaren berri

Kopla sorta hau Amaia Zubiriaren amonak Nafarroako Donamaria herrian ikasitakoa da. Amonak, sorta beste doinu honetan abesten zuen: "Amak ezkondu ninduen". Amaiak berak sortutako doinuaz plazaratu zituen koplak, "Amonaren mengantza" CDan (IZ, 1995).

Bertsuak jarri dizkat
neure **buruari**
nahigabia badaukat
barrenan **ugari**
mutil gustokorikan
ez dalako **ageri (bis)**.





ESTUTZEN EZ BAGAITU



Doinuaren sortzailea: Karidadeko Benta taldea.
Kopla honen egilea: Jon Maia (1972 Urretxu, Gipuzkoa).

Koplaren berri

“Treneko koplak” kantua, herritik alde egin beharrean suertatu den etorkinaren ahotik jarritako koplak sorta da. Karidadeko Bentak plazaratu zuen “San Quirico” diskoan (Gaztelupeko Hotsak, 2006).

Estutzen ez bagaitu
bere **neurriak**
kantatuko ditugu
kopla **berriak (bis)**
zerurik gabeko lur
bati **jarriak.**





OIHANEKO PAGOAK BLAI



Doinuaren sortzailea: Mikel Laboa.

Kopla honen egilea: Joseba Sarrionandia (1958 Iurreta, Bizkaia).

Koplaren berri

“Sorterriko Koblak” kantuan, naturako irudiak baliatuz, maitasunaz ari da Sarrionandia.

Halaxe amaitzen du sorta: “Mende oso bat iraganen dut zure ondoan koblaka”.

Oihaneko pagoak **blai**
aideratuz hiru **elai**
hostadarraren harian dira
hirurak pausatu **nahi (bis)**.





ISILDU ZAIGU EGUNA



Doinuaren egilea: Anton Latxa.

Kopla honen egilea: Joxe Austin Arrieta (1949 Donostia, Gipuzkoa).

Koplaren berri

“Ostatuko neskatxaren koplak” kantua Oskorri taldeak plazaratu zuen. Kopla sortak azaltzen du emakume baten samina, senarra Espainian preso dagoelako.

Isildu zaigu eguna
larre ondoan asuna
zure gomuta saminagoa
bihotz nereko kutuna.





HEMEN GEZURRA NAGUSI

Doinu mota: Dantzakoa.

Doinuaren jasotzaileak: Xabier Amuriza, Tapia eta Leturia. "Bizkaiko Koplak Zaharrak" diskoan jasoa, "Mendi altuan edurre" izenarekin.

Kopla honen egilea: Iñaki Zelaia (1973 Hernani, Gipuzkoa).

Koplaren berri

Kopla hau Iñaki Zelaiak abestu zuen 2011ko Gipuzkoako Txapelketan, Oñatiko saioan.

Iban Urdangarinek zen kantuan eta hauxe zuten gaia: Erromesak Lurdesera eraman dituzten bi autobus-gidari zarete. Hango aparkalekuan zaudete, panoramari begira.

Hemen gezurra nagusi (bis)
jendea zeinen itsusi
Lurdes hori famosa da
oraindik ez det ikusi
oraindik ez det ikusi
hemen gezurra nagusi.





PERTSIANA ZABALTZEAN



Doinuaren sortzailea: Gu ta Gutarrak taldea.

Kopla honen egileak: Igor Elortza (1975 Durango, Bizkaia), Unai Iturriaga (1974 Durango, Bizkaia).

Koplaren berri

“Gora gu ta gutarrak!” kantuak, garaiko arazo sozialen zertzeladak ematen ditu kopletan.

“Bertso berriak eta lagun zaharrak” diskoan argitaratua (Lanku, 2007).

Pertsiana **zabaltzean**
argitzen du **eskatzean**
aurrera begiratuta
zer uzten dugu **atzean?**

zer uzten dugu **atzean?**
pertsiana **zabaltzean.**





DOINUTEGIA

ZORTZIKO TXIKIA (hg)

LAU PUNTUKO TXIKIA (ip) ↗ ↗ ↗ ↗

Handwriting practice for the number 7. It consists of four rows of lines. Each row has a top line and a bottom line. The number 7 is written on each row, with a small arrow pointing to the right. The number 7 is written in brown ink.

Handwriting practice for the number 13. It consists of four rows of lines. Each row has a top line and a bottom line. The number 13 is written on each row, with a small arrow pointing to the right. The number 13 is written in brown ink.



DOINUAK



urratsak 1

Astoa ikusi nuen
Orioko balearena
Igaran egun batez



urratsak 3

Ene Lukas maitea
Nigarrez sortu nintzen
Orain hasi bihagu



urratsak 2

Mixelengo zubia
Ene seme maitea
Errota zahar maitea
Behin batean Loiolan
Neguaz primadera
Gizona da zoroa
Haizeak bidali du



urratsak 4

Ezagutu zuenak
Galerianoarena:
Lili bat ikusi dut /
Urzo zuri pollitt bat
Gitarra zahartxo bat det
Lo hadi ainguria



ASTOA IKUSI NUEN



Bertsoaren berri

Sortak azaltzen du nola ikasle batek lagun egiten duen asto hiztun bat, betaurreko eta gabardinaduna. Ikastolara gonbidatzen du eta astoa gelara datorrenean bizitako pasadizoak kontatzen ditu.

Doinuaren berri

“Hitz egin zionian” doinu herrikoia R.M. Azkuek eta Aita Donostiak jaso zuten. Imanol Urbieta musikariak egokitu egin zuen doinua eta “Astoa ikusi nuen betaurrekoekin” hasten den bertso sorta Joxean Ormazabalek egin zuen (1948-2010 Zegama, Gipuzkoa). Kantu oso ezaguna bilakatu zen eskoletan.

Astoa ikusi nuen
betaurrekoekin
buruan txapela ta
gabardinarekin
ile luzea eta
bigotearekin
hizketan egon nintzen
atzo berarekin.





ORIOKO BALEARENA



Doinuaren jasotzailea: R.M. Azkue.
Bertso honen egilea: Orbegozo.

Bertsoaren berri

“Orioko balearena” sortak azaltzen du Orion (Gipuzkoan) 1901ean balea nola harrapatu zuten. Sorta herriko apaizak idatzi zuen: Orbegozok.

Kantua ezagun egin da Benito Lertxundien ahotsean, 1977an diskoan argitaratu ostean.

Mila bederatzieun
ta lenengo **urtean**
maiatzaren hamalau
garren **egunean**
Orioko herriko
barraren **aurrean**
balea agertu zan
beatzik **aldean.**





IGARAN EGUN BATEZ



Doinuaren jasotzailea: Txomin Artola. "Berriz arte" kasetean argitaratua (Elkar, 1988).

Bertso honen egilea: Luis Ligetx "Larraularra" (1901 Larraine - 1940 Gamere-Zihiga, Zuberoa).

Bertsoaren berri

"Boneta eta txapela" bertso sortan azaltzen da bi lagunen arteko elkarrizketa.

Parisera joanda aberastu egin da Phetiri eta, txapela dotorea jantzita, Zuberoara itzuli da lagunak ikustera. Pierra adiskideak, euskaldun boneta jantzita, Zuberoan jarraitzea erabakia du.

Igaran egun batez egin dügü **erri**
hortaz nahi deiziet eman zerbait **berri**
Parisetik jin zaigu bidajez **Phetiri**
urte bakotx fortuna eginik **üdüri**.





MIXELENZO ZUBIA



Doinuaren jasotzailea: Nehor et Dufau.

Bertso honen egilea: Piarres Ibarrart "Bettiri" (1838 Jatsu - 1919 Baiona, Lapurdi).

Bertsoaren berri

Mixelengo zubia Baigorri dago (Nafarroa Beherean).

Bertso sortak azaltzen du nola apaiza arrantzan ari zen Mixelengo zubian eta hego haizeak txapela eraman zion. Apaiza hego haizeari kargu hartzen tematuko da, haizeari mehatxuka.

Kantua Erramun Martikorenak plazaratu zuen "Baigorriko artzain laboraria" kasetean (Elkar, 1978).

Mixelengo zubia zubi **famatua**
arrantzariendako toki **hautatua**
haize hegoak han du azkarra **xixtua**
niri laister egin daut xapelaz **tratua (bis)**.





ENE SEME MAITEA



Doinuaren eta bertsoaren berri

Doinua eta bertsoak 2010eko Xahakoa pastoralean plazaratu ziren, Barkoxe herriak eginiko obra antzeztuan (Zuberoan).

Pastorala eskaini zitzaion Barkoxe bertakoa izan zen Alexis Etchecopar "Attuli" (1924 - 2005) idazle eta koblakariaren bizialdiari.

Bertso hau aita-semeen elkarriketa islatzen duen eszenakoa da.

Ene seme maitea igaran **egünetan**
hik eman kantoreer beha laket **nintzan**
begiak triste beitütük bai aspaldi **hontan**
aitari erran ezak zer düan **gogoan.**





ERROTA ZAHAR MAITEA



Doinuaren sortzailea: Xabier Lete.

Bertso honen egilea: Juan Mari Lekuona (1927 Oiartzun - 2005 Donostia, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Bertsoek azaltzen dutenez, errota zaharrak alea xehetzean negar egiten duen bezalaxe, triste dago bertsolaria, bihotz minez, ezinezko maitasunagatik: "ezin gintezke bizi elkarren onduan".

Kantua ezagun egin zuten Xabier Letek eta Lourdes Iriondok.

Errota zahar maitea
uraren **ertzean**
uraren ertzean ta
basati **beltzean**
negar egiten dezu
alea **txetzean**
ni ere triste nabil
zutaz **oroitzean.**





BEHIN BATEAN LOIOLAN



Doinuaren jasotzailea: Antonio Zavala.

Bertso honen egilea: Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" (1931-1976 Donostia, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Sorta honetan Bilintxek azaltzen du Loiola auzoan (Donostian), erromerian, neska batekin izandako elkarrizketa. Bilintxek ezkontzeko eskatu zion baina neskak "jai jai!" erantzun.

Kantua ezagun egin zuten Txomin Artolak eta Amaia Zubiriak "Folk-lore-sorta" kasetean (Elkar, 1991).

Behin batean Loiolan
erromeria **zan**
hantxe ikusi nuen
neskatxa bat **plazan**
txoria baino ere
arinago **dantzan**
huraxe bai polita
han politik **bazan (bis).**





NEGUAZ PRIMADERA



Doinuaren jasotzailea: Aita Donostia.

Bertso honen egilea: Joan Batista Elizanburu (1828-1891 Sara, Lapurdi).

Bertsoaren berri

“Apexa eta lorea” bertso sortak azaltzen du apexa (edo tximeleta) eta lorearen arteko maitasuna. Goizero, eguzki argitan, tximeleta hegan joaten da lorez lore eta iluntzean, eguzkia sartzean, tximeleta itzuli egiten da hain maitea duen lorearengana. Loreak ere nahi luke apexarekin hegan joan baina lurrari lotuta dago.

Bertso sorta hau 1862ko Lore Jokoetan aurkeztu zuen Elizanburuk.

Neguz primadera zenean **jabetu**
sasi baten hegian apexa zen **sortu**
leku berean baitzen lorea **gertatu**
gaixoek elgar zuten bihotzez **maitatu**.





GIZONA DA ZOROA



Doinuaren jasotzailea eta bertso honen egilea: Fernando Aire "Xalbador" (1920-1976 Urepele, Nafarroa Beherea). "Odolaren mintzoa" kasetean grabatu zuen (1976).

Bertsoaren berri

"Ene errekontrua" bertso sorta uso ehiztariei jarritakoa da. Bertan Xalbadorrek azaltzen du nola usotan zebilela, eskopeta bizkarrean, ustekabean tiroak ihes egin eta zango muturrean jo zuen. Bi hatz moztu zizkioten. Hor konturatzen da Xalbador zer egiten dieten ehiztariek usei. Argia da bere mezua: "bizi nahi badugu trankil eta uros / harma xaharra sal ta berririk ez eros".

Gizona da zoroa ta bihotz **gabea**
barnean baldin badu plazerren **gosea**
arimadun batentzat zer **egitatea**
hegaztin inozenter bizia **kentzea**.





HAIZEAK BIDALI DU



Bertso honen egilea: Manuel Lujanbio "Txirrita" (1860 Ereñotzu - 1936 Altza, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Txirrita hargina zen. Behin, hargin onaren fama zuen Andaluziako langile bati horma oker xamarra atera zitzaion eta, hortxe ari zen, zuzendu nahian, paretari bultzaka. Bertso hau bota zion Txirritak.

Haizeak bidali du
handikan **honuntza**
geroztik hemen dabil
gure **andaluza**
hargin ona zala ta
zakurraren **putza**
bera eroriko dek
ez akiok **bultzaka**.





ENE LUKAS MAITEA



Doinuaren jasotzaileak: Aita Donostia eta Fernando Aire "Xalbador".

Bertso honen egilea: Fernando Aire "Xalbador" (1920-1976 Urepele, Nafarroa Beherea).

Bertsoaren berri

"Lukas adixkideari" sorta, eskerrak emateko jarri zuen Xalbadorrek.

"Odolaren mintzoa" liburuan (1976) azaltzen duenez, Lukas Urepeleko herritar bat zen, Ameriketara gazterik joana. Azken aldera bixita batzuk egin zituen Urepelera eta bertsozale beroa zen: Mattin ere ekar arazi izan zuen Urepelera, Xalbadorrekin kanta zezan.

Behin, egonaldi baten ostean, Lukasek Amerikatik dirua igorri zion erretoreari, apaiz etxean bazkaria egin zezaten lau lagunek (tartean zen Xalbador); bazkaldu soilik ez, afaldu arte ez ziren atera apaizarenetik! Lukasi eskerrak bidaltzeko, bertsoak jar zitzala eskatu zioten lagunek Xalbadorri.

Ene Lukas maitea zer bihotza **duzun
gutaz arta hartzeko izanik hoin **urrun**
beldurtzeko da Euskal Herrian ez **dugun**
zu bezalakotarik bi miletan **ehun.****





NIGARREZ SORTU NINTZEN



*Doinuaren jasotzailea: Aita Donostia.
Non jasoa: Saran, Lapurdin.*

Bertsoaren berri

Bertso sortak azaltzen du jaio eta hiru ordura aita-amek abandonatu duten haurtxo baten heriotza. Abandonaturik, haurtxoak ondoan txoriak zituen kantari. Maria Andredenak aurkitu zuen eta zerurako bidea erakutsi zion "aingerutxoari".

**Nigarrez sortu nintzen nigarrez hiltzeko
ez ordea munduan luzaz bizitzeko
jendek izanen dute erraiteko franko
aita ama maiteak zuek biendako.**





ORAIN HASI BIHAGU



Doinuaren jasotzailea: Antonio Zavala.

Bertso honen egilea: Juan Frantzisko Petriarena "Xenpelar" (1835-1869 Erreterria, Gipuzkoa).

Doinuaren berri

Grabatu den bertso doinurik zaharrena da. Bertsolari baten lehen grabazioa Columbia disketxeak argitaratu zuen 1927 inguruan. Grabazio horretan "Asteasu" eta "Txirrita" bertsolariak doinu hau erabiltzen dute.

Bertsoaren berri


"Xenpelar" eta "Ardotx" bertsolariak bat-batean egindako bertsoaldiaren lehen bertsoa da hau. Lezon (Gipuzkoan) ari dira bertsoan eta inguruan begira dituzten neska-mutilekin sartzen dira. Xenpelarrek esaten du, bertsoen aitzakian, pozik arrimatzen direla neskak mutilen ondora. Ardotxek erantzun, mutilak ere ez direla joaten nesken ihesi.

Orain hasi bihagu
asunto **berrian**
zer gertatutzen zaigun
Lezoko **herrian**
neska gazteak daude
hemen **alegrian**
kantaren aitzakian
mutilen **erdian.**





EZAGUTU ZUENAK



Doinuaren jasotzailea eta bertso honen egilea: Manuel Olaizola "Uztapide"
(1909 Endoia - 1983 Ergoien, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

"Aita zanari" bertso sorta "Sasoia joan da gero" (Auspoa, 1976) liburuan argitaratu zuen Uztapidek. Aitaz duen akordua da nekazari langile gogorrarena:

"Zortzi seme-alaba errez da esaten / hazitzia ez da hain erraza izaten".

"Hamasei bat orduko eguna lanian / zer poza egun hura bukatzen zanian!"


Ezagutu zuenak
gure aita **zana**
bildurrik gabe egin
izan zuen **lana**
zortzi seme alaba
hazitzeko **zama**
horregatikan hartu
zuen **beregana.**





GALERIANOAREN KANTUA

LILI BAT IKUSI DUT / URZO XURI POLLIT BAT



“Galerianoaren kantua” : Pantxoa eta Peio abeslariak egin zuten ezagun, 1975ean argitaratutako diskoan (Elkar). Kantu horretan bi bertso doinu tartekatzen dituzte: Lili bat ikusi dut I eta Urzo xuri pollit bat A.

LILI BAT IKUSI DUT

Kantuak azaltzen du nola “lili bat” (edo maite bat) gustuko zuen eta saiatu zen gabez joanda besoetan hartzen. Baina guardian zaintzen zuten “lilia” eta kasik bertan akabatu zuten bisitaria. Gazteei azken mezu bat ematen die: gisa horretan ez ibiltzeko gabez.

Lili bat ikusi dut baratze **batean**
desiratzen bait nuke neure **sahetsean**
lorerik ez du galtzen udan ez **neguan**
haren parerik ez da beste bat **munduan**.

URZO XURI POLLIT BAT

Kantuak azaltzen du nola ehiztari zahar batek usoak harrapatzen zituen, gero kaiolan sartu eta saltzeko.

Urzo xuri pollit bat bazen herri **huntan**
aita amak utzirik joan zen **airetan**
pare gabia baitzen bere **lagunetan**
ihiztariak zuen atzeman **saretan**.





GITARRA ZAHARTXO BAT DET



Doinuaren jasotzaileak: G. Etxeberria, J.A. Santesteban.

Bertso honen egilea: Joxe Mari Iparragirre (1820 Urretxu - 1881 Itxaso, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Kantu honetan Iparragirrek azaltzen du nola dabilen munduan barna, artista bizimoduan, gitarraz kantari.

Lehen Gerrate Karlista hasi zenean, 14 urterekin, soldadu sartu zen batailoi karlistan. Gerran hasi zen Iparragirre gitarra jotzen, kantuan eta bertsoan. Frantzia, Suitzan, Italian, Alemanian, Londresen eta Ameriketara izan zen. Buenos Airesen (Argentinan) bizi izan zen urtetan eta 1878an itzuli zen Euskal Herrira. Omenaldi asko egin zizkioten arren, guztiz pobre bizi izan zen hil arte.

Gitarra zahartxo bat det
nik nere **laguna**
honela ibiltzen da
artista **euskalduna**
egun batean pobre
beste batez **jauna**
kantari pasatzen det
nik beti **eguna**.





LO ADI AINGURIA



Doinu mota: Sehaska kanta.

*Doinuaren sortzailea eta bertso honen egilea: Pierre Bordazarre "Etxahun-Iruri"
(1908 Iruri, Zuberoa - 1979 Pau, Frantzia).*

Bertsoaren berri

Sehaska kanta honetan ama entzuten dugu, haurra loharrazten: bere aingerua. Kanpoan gau giro beldurgarria egiten du eta aita itsasoan da. Ama izututa dago, aita ez ote den itzuliko.

Kantua ezagun egin da Maddi Oihenarten ahotsean, hainbat diskatan.

Lo hadi aingüria amaren **altzuan**
hire erri ederra botz ezpain **xokuan**
axolbian gaituk bainan ni tristura **goguan**
hau gaitza duk kanpuan ta aita **itsasuan.**





DOINUTEGIA

ZORTZIKO HANDIA (hg)

LAU PUNTUKO HANDIA (ip) ↗ ↗ ↗ ↗

↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (10)	↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (18) ↗
↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (8) ↗	↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (18) ↗
↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (10)	↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (18) ↗
↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (8) ↗	↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (18) ↗
↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (10)	↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (18) ↗
↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (8) ↗	↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖↖ (18) ↗



DOINUA

urratsak
2

Ari naizela ari naizela
Aita Jainkoak egin banindu
Loreak udan ihintza bezela

urratsak
3

Beti penetan beti penetan
Oraindik hango oihartzun hots bat
Nere sehaska oraindik ere
Erreguetan ari nintzela

urratsak
4

Beste bateko inularretan
Bizia sortzen, hazten, garbitzen
Manuel Narruk atzo esan dit
Aberastarzün izigarria



ARI NAIZELA ARI NAIZELA



Doinuaren jasotzaileak: Iñaki Eizmendi "Basarri", Manuel Lekuona.

Bertso honen egilea: Pedro Jose Elizegi "Pello Errota" (1840-1919 Asteasu, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

"Pello Errota" tabernan dela, hor sartu da "Txirrita" (1860 Ereñotzu - 1936 Altza, Gipuzkoa).

Kantulagun minak dira biak eta, adarra jotzen, halaxe bota dio lehen bertsoa Pellok.

Ezaguna da Txirritak emandako erantzuna ere: "Pellok bi nola jantziko ditu bat besterikan ez du-ta".

Ari naizela ari naizela
hor ikusten det **Txirrita**
eta zein ez da harrituko gaur
gizon hori **ikusita**
dударik gabe egina dio
andregaiari **bisita**
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora **jantzita**.





AITA JAINKOAK EGIN BANINDU



Doinuaren jasotzaileak: Aita Donostia, Lekunberriko Modesto.
Non jaso: Arraiozen, Nafarroan.

Bertsoaren berri

Maitasunari buruzko bertsoak dira. Bertan azaltzen da nola gurasoek semea Salamancara bidaltzen duten fraile ikastera. Bidean, hauxe pentsatzen du semeak: “estudiante tunante baino hobe nuela ezkondu”. Ezkondu zen bai, eta damutu: “Praka beltzetan hari zuria ez zait sekula faltatu”.

“Txiki txikitik aitak eta amak” kantua Amaia Zubiriak eta Txomin Artolak egin zuten ezagun, “Folk-Lore-Sorta” diskoan (1991).

Aita Jainkoak egin banindu
zeruetako **giltzari**
azken orduan jakingo nuke
atea nori **iriki**
lehenengo aitari, gero amari
gero anai **arrebari**
ta azken orduan ixil ixilik
nere maite **politari**.





LOREAK UDAN IHINTZA BEZELA



Bertso honen egilea: Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" (1831-1876 Donostia, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

"Itzazu nitaz kupira" sortan, Bilintxek neska bati dion maitasuna azaltzen du. Bilintxek ezkontzeko eskatzen dio, baina dama gazteak ezetza eman. Erreguka amaitzen du azken bertsoa: "itzazu nitaz kupira".

Xabier Letek eta Benito Lertxundik egin zuten ezagun sorta, bakoitzak doinua aldaera banatan abestuta.

Loreak udan ihintza bezela
maite det dama **gazte bat**
hari hainbeste nahi diotenik
ez da munduan **beste bat**
inoiz edo behin pasatzen badet
ikusi gabe **aste bat**
bihotz guztira banatutzen zait
halako gauza **triste bat**.





BETI PENETAN BETI PENETAN



*Doinuaren jasotzailea: Aita Donostia.
Non jaso: Arraiozen, Nafarroan.*

Bertsoaren berri

Benito Lertxundik egin zuen ezagun kantua, "Eta maita herria" kasetean (1975).

Neurriari dagokionez, jatorriz doinua hiru puntuko koplada. Plazan zortziko handian (hg)/ lau puntuko handian (ip) erabiltzen da.

Beti penetan beti **penetan**
bizi naiz mundu **hunetan**
egunaz zerbait alegutzen naiz
gabaz beti **penetan**
neureganako amorioa
joan zitzaizun **batetan**.





ORAINDIK HANGO OIHARTZUN HOTS BAT



Doinuaren sortzailea: Imanol Larzabal kantaria. "Naiari" sehaska kanta.
Bertso honen egilea: Aitor Mendiluze (1975 Andoain, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

2017ko Txapelketa Nagusian erabili zuten bertсотan lehen aldiz Aitor Mendiluzek eta Maialen Lujanbiok, buruz burukoan. Gaia: Bake artisauak zarete. Lehengo larunbatean, lanean aritu zineten Parisen. Astebete pasatu da, eta etorkizunari begira jarri zarete.

"Bake artisauak" edo "bakegileak": Ipar Euskal Herriko herritar ekintzailez osatutako talde bat da, 2017an ETA armagabetzea lortzeko bitartekaritza lanak egin zituen ETArekin.

Oraindik hango oihartzun hots bat
besterik ez det **aditzen**
herriak zerbait behar zuela
lehengo astean **argi zen**
eta nahiz eta saiatu geran
gu bide hori **argitzen**
bidea ez zen Parisen hasi
ta ez da amaitzen **Parisen.**





NERE SEHASKA ORAINDIK ERE



Doinuaren sortzailea: Karlos Gimenez.

Bertso honen egilea: Joxe Miel Iztueta "Lazkao Txiki" (1926 Lazkao - 1993 Donostia, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Lazkao Txikik bere sehaskari hiru bertso jarri zizkion eta, bertsolaria hil ostean, "Irriz eta malkoz" liburuan argitaratu zen (1994 Auspoa).

Sorta ezagun egin dute Xabier Letek, "200 urtez bertsotan" CD bilduman (Elkarlanean, 2001) eta Kupela taldeak, "Gailurrak ikutuz" CDan (Elkarlanean, 2012).

Nere sehaska oraindik ere
gordea daukat **goguan**
neronek ere zail da esaten
zenbat maitatutzen **nuan**
bere gainean ibiltzen niñun
txoritxo baten **moduan**
karga haundirik ez nuen eta
aixa jasotzen **ninduan.**





ERREGUETAN ARI NINTZELA



Bertso honen egilea: Justo Maria Mokoroa (1901 Tolosa, Gipuzkoa - 1990 Bilbo, Bizkaia).

Bertsoaren berri

“Erreguetan” bertso sorta emakume baten ahotik idatzita dago. Iñaziotxorekin ezkondu nahi du baina haren amak ez du begi onez ikusten eta neskak monja edo lekaime sartzea erabakitzen du. Lekaime sartuagatik, beti oroituko da Iñaziotxorekin: “goiz gauetako erreuetan ez naiz ahaztuko zugatik”.

“Debekatutzen duten ezkerro ezkonduzea munduan /saia gaitezen ahaleginean alkartutzeko zeruan.”

Antzerki bat ere bada bertso hauekin, “Garo usaia” izenekoa.

Erreguetan ari nintzela
hartu nuen **albistea**
ama zureak nahi ez duela
biok **alkarganatzea**
nola ez neukan oraindiokan
gauz hori **erabakia**
berbertatikan asmo hartzen det
lekaimetan **sartutzia.**





BESTE BATEKO INULARRETAN

Doinuaren jasotzailea: Nemesio Etxaniz.

Bertso honen egilea: Salvatore Mitxelena (1919 Zarautz, Gipuzkoa - 1965 Suitza).

Bertsoaren berri

“Alargunarena” sortan azaltzen da senar arrantzalea itsasoan galdu duen alargunaren mina.

Bitartean, alabatxoa egunsentiz mendira igotzen da, itsasora begira egoteko, aita noiz itzuliko zain. Ama ez da ausartzen alabari egia esatera.


Kantua ezagun egin zuten, herriz herri kantari, Ondarroako “Argoitia anaiek”, 1970 inguruan.

Beste bateko inularretan
maite ohi nun **itsasoa**
arraiz beteta azaldutzean
txalupak mugan **lepoa**
arrantzalea nuen senarra
arrantzalea **gaxoa**
itsas gaizto horrek irentsi didak
gaur diat nik **gorrotoa (bis)**.





BIZIA SORTZEN, HAZTEN, GARBITZEN



Doinuaren eta bertsoaren berri


Doinua eta bertsoa 2023ko pastoralean plazaratu zen, Sohütako herriak eginiko obra antzeztuan (Zuberoa). Pastoralak Jean Louis Davant euskaltzainak idatzi zuen (1935 Ürrüstoi-Larrabile, Zuberoa) eta René Cassin politikari eta legelariaren bizialdia azaltzen du.

René Cassin (1887 Baiona, Lapurdi - 1976 Paris, Frantzia) izan zen II. Mundu Gerraren ostean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren moldatzaile nagusia. 1968an Nobel Bake saria eman zioten.

Bertso hau, pastoralean, "Emazteen gerla" atalekoa da.

Bizia sortzen, hazten, garbitzen eta berotzen **etxean**.
Iheslaria gorda sabaian, opila pausa **labean**.
Presonerari koli bat igor, gizon-lana har **elgean**.
Zaharrak arta, haurrak eraiki, makiak haz **bordaldean**.





MANUEL NARRUK ATZO ESAN DIT

Bertsoaren jasotzailea: R.M. Azkue.

Doinuaren berri

Doinua asko erabiltzen da Gabon kanta gisa, "Gaueko izar argitsuena" bertsoaz.

Bertsoaren berri


"Manuek Narruk" bertsoak jartzeko eskatu dio bertsolari bati (ez dakigu nor den egilea), behor tratuan egin dioten azpijokoaren berri zabaltzeko. Ederki sartu diote ziria Manuel Narruri: behorrek zortzi urte zituela eta ernari zegoela esan, eta benetan hamasei urte izan eta antzu egon. Begi bakarra zela, eta itsua izan.

Manuel Narruk atzo esan dit
bertso berriak **jartzeko**
behor tratua nola egin duen
bere burua **galtzeko**
Don Blas Querido enpeñatu da
neri gezur hau **sartzeko**
ganadu txur hau enkajatu dit
kotxeru bati **saltzeko**.





ABERASTARZÜN IZIGARRIA



Doinuaren eta bertsoaren berri

“Lagünak” kantuarena da doinua eta bertsoa. “Aberastarzün izigarria” da laguntasuna!
Kantua Xiberotarrak musika taldeak “Lürrama” diskoan (2019) jaso du.

Aberastarzün izigarria lagün honen **ükeitea**
bihotz minetan, sofrimenetan, norbaiten hor **ikustea**
beharrünea agertzen bada, arrunt hedatzen **esküa**
bai eta ere plazer denean, bi kantoren **emaitea**.





IRAGAN EGUN BATEZ



Doinuaren sortzailea: Mikel Laboa.

Bertso honen egilea: Fernando Aire "Xalbador" (1920-1976 Urepele, Behe Nafarroa).

Bertsoaren berri

"Herria eta hizkuntza" sorta "Odolaren mintzoa" liburuan argitaratu zuen Xalbadorrek. Bertan azaltzen du bi herritarren arteko eztabaida: bata frantsesez mintzo da, Euskal Herri aske baten alde. Bestea euskaraz mintzo da eta frantses sentitzen da. Bi lagun horien kontraesanak bistaratzen ditu sortan: "Bat herria goratzen arrotz baten gisa / arrotz nahiak berriz herriaren hitza". Xalbadorrentzat herria eta hizkuntza bat dira: "herria da gorputza hizkuntza bihotza".

Kantua ezagun egin zen Mikel Laboaren ahotsean; "Lau Bost" diskoan kaleratu zuen lehen aldiz (1980).

Iragan egun batez, ostatu **batean**,
bi lagun ari ziren ez ta ba **betean**;
biak ziren euskaldun zintzoak **ustean**,
halere ezin adi elgarren **artean**;
entzuten egon naiz omore **tristean**.





ESPAINIAN BEHERA



Doinuaren jasotzailea eta bertso honen egilea: Xabier Amuriza (1941 Etxano, Bizkaia).

Doinuaren berri

Doinua eibartar batzuegandik jaso zuen Amurizak, "Agur sagar beltzeran" liburuan dionez. Eibartarrek doinu honetan abesten zuten Bilintxen "Potajiarenak" sorta ("Egunaren izena" doinuaren ordeztu).

Bertsoaren berri

"Bertso berriak horma zaharrei jarriak" sortakoa da bertsoa; 1972an idatzi zuen, kartzelako berri emanez (artean apaiza zela). Izan ere 1968tik aurrera, Francoren diktadura garaian, zazpi urte egin zituen preso Amurizak, hiru espetxealditan.

Gerora, sorta hau "Menditik mundura" kasetean ere zabaldu zuen (1978).

Espainian behera
han dago **Zamora**
basamortu hoberik
nonbait **izango da.**
Ez mendi ez itsaso
ez belar ez **lora**
hementxe bizi behar
hainbeste **denbora**
hain maite dugun Euskal
Herritik **kanpora.**





ANTTON ETA MARIA



Doinuaren jasotzaileak: Aita Donostia, Patziku Perurena, Jorge Riezu, Jose Mari Satrustegi.
Bertso honen egilea: Jean Pierre Harinordoki.

Bertsoaren berri

“Antton eta Maria” sortan kontatzen da zer gertatu zen Banka herrian (Nafarroa Beherean), bi maitale ohien artean. Anttoni etxera etorri zaio gizon bat, esanaz Maria erditu berri dela eta bera dela haurraren aita; Anttonek ukatu egiten du (bi urtean ez omen du hitz egin Mariarekin). Anttonek etxean andrearekin pentsatzen du zer egin; Manexeneko Zimonekin joango da Mariarengana, kontuak argitzera. Mariak argi esaten dio: “Haur hori tokatzen duk hire ta enetako”.

**Bertsu berri batzuen noa emaitera
Banka hortan sujetak ardura baitira
Antton eta Maria xangrinetan dira
uste gabe gaixoak tronpatu bait dira
elgarri soberaxko konfiatu dira (bis).**





LAGUNDURIKAN DANOI



Bertso honen egilea: Pello Mari Otaño (1857 Zizurkil, Gipuzkoa - 1910 Rosario, Argentina).

Bertsoaren berri

“Aita-semeak” sortakoa da bertsoa. Ameriketara abiatzear den semeari, agurrean, aitak esaten dizkion azken hitzak azaltzen ditu sortak.

Otaño 18 urterekin joan zen, lehen aldiz, Argentinara; 1875ean, seguru asko Karlisten gerratetik ihesi. Bizitzan hirutan joan zen Ameriketara eta Argentinan hil zen.

Lagundurikan danoi
gugatik hil **zanak**
seme, hazi zaitugu
aitak eta **amak**
beti zure gidari
izandu **geranak**
orain gurutze honen
oinetan **esanak**
ondo gogoan hartu
behaituzun **danak**.





AGUR SAGAR BELTZERAN



Doinuaren sortzailea eta bertso honen egilea: Xabier Amuriza (1941 Etxano, Bizkaia).

Bertsoaren berri

“Agur sagar beltzeran” sortako azken bertsoa da hau. Sortaren gaia da, telebistako izar bihurtuta Euskal Herritik alde egin eta erdaraz mintzo den pertsonaia famatuarena.

Kantua Anje Duhalderen ahotsean egin zen ezagun, “Anje Duhalde Xabier Amurizaren kantari” diskoaz (IZ, 1990).

Agur, sagar beltzeran
edo **beilegia**
agur betiko hire
izar **aurpegia**.
Izango haiz ederra
baita **ederregia**
baina ez maitatua
ezin **alegia**:
Heuk ez sinestu baina
hori dun **egia**.





JAINKOAK EMAITEN DU



Bertso honen egilea: Fernando Aire "Xalbador" (1920-1976 Urepele, Behe Nafarroa).

Bertsoaren berri

"Kukua eta primadera" sortako bertsoa da hau. Kukuak jotzea, udaberria iritsi den seinale da; "biziaren esperantza erakartzen dauku".


Kantua Imanol Larzabal abeslariak zabaldu zuen hainbat diskatan.

Jainkoak emaiten du hainbeste **aholku**
urtearen barruan asko heldu **zauku**
batzu alaiak eta beste batzu **mutu**.
Kukuak primaderan egiten du **kuku**
biziaren esperantza erakartzen **dauku**.





HEMEN ZIZURKILDAR BAT



Doinuaren sortzailea: Xabier Lete.

Bertso honen egilea: Manuel Lujanbio "Txirrita" (1860 Ereñotzu, Gipuzkoa - 1936 Altza, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Bertso hau Txirritak eskaini zion Pello Mari Otaño bertsolariari, bere heriotzean (1857 Zizurkil, Gipuzkoa - 1910 Rosario, Argentina).


Xabier Lete abeslariak "200 urtez bertsoan" CD bilduman Txirritari eskainitako antologian abestu zuen bertso hau, Letek berak sortutako doinuaz (Elkarlanean, 2001).

Hemen zizurkildar bat
genuen **gizona**
eskola haundikua
ta euskaldun **zuzena**
Ameriketan urte
askoan **izana**
Pedro Mari Otaño
zedukan **izena**
hamaika bertso polit
jarrita hil **zena.**





EGUNAREN IZENA



Doinuaren jasotzailea: J.A. Santesteban.

Bertso honen egilea: Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" (1831-1876 Donostia, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri


"Potajiarena" bertso sortako lehen bertsoa da. Bilintxek sortan azaltzen du, Oiartzunen (Gipuzkoan) pilota partida bat ikusi ostean, nola sartu zen ostatu batera bazkaltzera. Mahaian apaiza egokitu zen eta garbantzuz (edo potaje) platerkada handiak jan zituen hark, Bilintx goseak utziz.

Egunaren izena
ez dakit nola **zan**,
baiño seiñalagarri
partidu bat **bazan**,
pelotan jokatzeko
Oiartzungo **plazan**;
nahi det nere orduko
gertaera **esan**,
hurrenguan beste bat
eskarmenta **dezan (bis)**.





SEME EZARRI BAINAUK



Doinuaren sortzailea: Pantxo Etxeberri (Lekuine, Lapurdi). Baigorriko (Behe Nafarroako) kultur aste baterako sortu zuen doinua, Xalbadorri egin zioten omenaldirako.
Bertso honen egilea: Fernando Aire "Xalbador" (1920-1976 Urepele, Behe Nafarroa).

Bertsoaren berri

"Semeari" sortako lehen bertsoa da hau. Xalbadorren semea, Mixel, Ameriketara joana zen; semeak gutuna idatzi zuen etxera, puska batean ez zela itzuliko esanaz. Xalbador aitak, penaturik, sorta honekin erantzun zion.


Kantua ezagun egin da "Aire ahizpen" ahotsean (Xalbador zenaren bilobak dira). Horra etxeko hiru belaunaldi lotzen dituen sorta: Fernando Aire "Xalbador", Mixel Aire eta "Aire ahizpak".

Seme ezarri bainauk dudazko **trantzean**,
kantatzerat noakik, pena **bihotzean**;
esperantzaz beteak ginenak **artean**,
hire azken aldiko berriak **hartzean**,
hotz ikara ilun bat sartu duk **etxean (bis)**.





AI GURE ANTZINAKO



*Doinuaren jasotzaileak: Aita Donostia, Salvatore Mitxelena, Nehor et Dufau, Antonio Zavala.
Bertso honen egilea: Juan Kruz Zafirain (1867-1934 Errenteria, Gipuzkoa).*

Doinuaren berri

Doinua bi modutan baliatu daiteke: hamarreko txiki gisa (lehen puntua errepikatuz) hala, lehen puntuari segidan puntu motza erantsiz, 6 puntuko gisa.

Doinu hau “Esne saltzailea” izenez ere ezaguna da Hegoaldean; Iparraldean ere asko erabili da, “Saratarra naizela” izeneko bertsoak kantatzeko.

Bertsoaren berri

“Ai gure antxiñeko” bertso sorta honetan, Zafirainek bizi duen garai “modernoaren” alde txarrak azaltzen ditu.

Ai gure antzinako
guraso **nobliak**
zituzten **legiak**
guk hainbat trabaju ta
fetxarik **gabiak**
adelantua dala
uste du **jendiak**
jarri dituztelako
trena ta **tranbiak**
ondoren datozenak
ez dira **hobiak (bis)**.





DOINUTEGIA

HAMARREKO HANDIA (hg)

BOST PUNTUKO HANDIA (ip) ↗ ↗ ↗ ↗ ↗

Handwriting practice lines for 'HAMARREKO HANDIA (hg)'. Each line consists of a top line with a dashed line below it, and a bottom line with a dashed line above it. The number of strokes and the direction of the arrow are indicated on the right side of each line.

- Line 1: (10) ↗
- Line 2: (8) ↗
- Line 3: (10) ↗
- Line 4: (8) ↗
- Line 5: (10) ↗
- Line 6: (8) ↗
- Line 7: (10) ↗
- Line 8: (8) ↗

Handwriting practice lines for 'BOST PUNTUKO HANDIA (ip)'. Each line consists of a top line with a dashed line below it, and a bottom line with a dashed line above it. The number of strokes and the direction of the arrow are indicated on the right side of each line.

- Line 1: (18) ↗
- Line 2: (18) ↗
- Line 3: (18) ↗
- Line 4: (18) ↗
- Line 5: (18) ↗



DOINUAK



urratsak
3

Azken arnasa eman nahi nuke
Mutil koxkor bat itsuaurreko



urratsak
4

Gogoan daukat ez du aspaldi
Aita izena kanta beharrak
Bizia ez da nehoiz egoiten
Lurraren pean sar nindaiteke



AZKEN ARNASA EMAN NAHI NUKE



Doinuaren sortzailea: Benito Lertxundi.

Bertso honen egilea: Jon Maia (1972 Urretxu, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Jon Maiak "Itsasoari begira" sortan, Euskal Herriari buruzko gogoetak jaso zituen. Bertso hau, sortako azken bertsoa da.

Kantua Benito Lertxundik plazaratu zuen "40 urtez ikasten egonak" CDan (Elkar, 2005).

Sebastian Lizasoren bertsoari keinua

"Azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira" esaldia Sebastian Lizasok kantatu zuen 1989ko Txapelketa Nagusiko finalean, kartzelako (edo egungo ganbarako) lanean. Halaxe zion gaiak: "Bizitza guztia itsasoan eman duzu: Gaur egun ohetik mugitu ezinez zaude. Leihotik sartzen zaizu itsasoaren olatu hotsa". Azken bertsoa eta bertsoaldia errematatzeko kantatu zuen Lizasok "Azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira".

Azken arnasa eman nahi nuke
eguna hiltzen **ari da**
azken arnasa eman nahi nuke
bertsoak entzuten **dira**
azken arnasa eman nahi nuke
kantari nator **herrira**
azken arnasa ematen dugu
eguzkitik **eguzkira**
azken arnasa eman nahi nuke
itsasoari **begira.**





MUTIL KOXKOR BAT ITSUAURREKO

Bertso honen egilea: Pello Mari Otaño (1857 Zizurkil, Gipuzkoa - 1910 Rosario, Argentina).

Doinuaren berri

Doinu hau neurritz nahi adina luzatu izan dute bertsolariek. Hamabi puntuko bertsoa ere bota zuen "Basarri"k, 1960ko Txapelketa Nagusia irabazi zuenean, azken agurrean.

Bertsoaren berri

"Limosnatxo bat" sortaren lehen bertsoa da hau. Sortak azaltzen du eskale zahar baten nahigabea, gaztetan odol beroz gerrara joan izanagatik; itsu eta eri itzuli zen gerratik. Pello Mari Otaño gaztea zela II. Karlistaldia piztu zen eta 18 urterekin Argentinara joatea erabaki zuen, seguru asko gerratik ihesi.

Mutil koxkor bat itsuaurreko
zuela **aldamenian**
gizon burusoil bizar zuri bat
bi makuluren **gainian**
kale ertzian ikusi nuen
inora ezin **joanian**
ta bera nor zan jakin nahiean
inguratu **nintzarian**
limosnatxo bat eskatu zidan
Jainkuaren **izenian.**





GOGOAN DAUKAT EZ DU ASPALDI



Doinuaren sortzailea: Jose Luis Lekunberri.

Bertso honen egilea: Aitor Sarasua (1967 Aretxabaleta, Gipuzkoa - 2018 Itsasu, Lapurdi).


Bertsoaren berri

“Ursus Tibetanus” sortako lehen bertsoa da. Tibeteko hartza baten begiradatik idatzitako sorta da, Himalaiako mendi-gailurrak konkistatzeko gizakien jarreraz edo “himalaismoaz”.

Kantua “Fauna txiki bat bertso berritan” diskoan atera zuten Aitor eta Jon Sarasua anaiek (Elkar, 1995).

Gogoan daukat ez du aspaldi hartz bihurrioren **lilura** izerdi hotzez hurbiltzen ginen Buru ilun **lurruntsura** hainbeste maite genuen tontor sakratuaren **itsura** hurbil ta urrun, haizez gordea, begira beti **zerura** gizonik inoiz iritsi ez zen toki bakarra zen **hura**.





AITA IZENA KANTA BEHARRAK

Doinuaren sortzailea eta bertso honen egilea: Xabier Amuriza (1941 Etxano, Bizkaia).

Bertsoaren berri

1980ko Txapelketa Nagusian bakarka hiru bertso kantatzeko gai hau jarri zioten Amurizari: Aita. Xabierrek aita hila zuen, bera Zamorako kartzelan zegoen bitartean; zazpi urte egin zituen preso, hiru espetxealditan, Francoren diktadura garaian (1968tik aurrera).


Amurizak irabazi zuen 1980ko Txapelketa Nagusi hura eta baita 1982koa ere.

Aita izena kanta beharrak
jarri dit bihotza **bero**
aukera eder hau izango zenik
ez nuen hemen **espero**;
preso nengoen Zamoran eta
han gelditu ia **ero**
joan nintzen ta bertan nengola
aita hil zitzaidan **gero**
nahiago nuke edozer baino
hemen bizirik **balego (bis)**.





BIZIA EZ DA NEHOIZ EGOITEN



*Doinuaren jasotzailea eta bertso honen egilea: Fernando Aire "Xalbador"
(1920 - 1976 Urepele, Behe Nafarroa).*

Bertsoaren berri

"Amentsetan" sortako lehen bertsoa da hau. Amets nahasi bat azaltzen du Xalbadorrek; bertan ikusi du bikote gazte baten amodioak zer indar duen eta, kontrastean, adinak zer ezkortasun ematen duen.


Sorta "Odolaren mintzoa" liburuan eta kasetean argitaratu zuen (1976).

Bizia ez da nehoiz egoiten bere dohainen **betean**,
aldakorra da nola eguna goizetik arrats **artean**,
bildu bezanbat galtzen baitzaio urteak **iragaitean**;
zahartzean zer pentsatzen den ta zer senditzen den **gaztean**
joan den gau batez ikusi dut nik aments nahasi **batean (bis)**.





LURRAREN PEAN SAR NINDAITEKE



Doinuaren jasotzaileak: Aita Donostia, J.D.J. Salaberry, Julien Vinson, Agosti Xaho.

Doinuaren berri

Doinu honekin osatu zuen Pablo Sorozabal konposatzaileak "Gernika" euskal hileta martxa.

Bertsoaren berri

Hauxe da "Luzaide'ko kantiak" liburuan jasotzen dena (Auspoa, 1867): Luzaiden (Nafarroa Garaian, Nafarroa Behereaz mugan) eztei sonatuak izan ziren 1824ko azaroaren 23an. "Marimaite" etxe aberatseko alaba zaharrena ezkontzen zen, Maria Josefa Ferran. Senargaia, berriz, herriko familia zaharrenetako bateko semea zen: "Garnada"ko Pedro Bartzelona. Dirua eta izen ona, uztarrarian; alabaren "dotea" (edo ezkontzean gurasoek emandako ondasuna) 350 urrezko "Luis" izan ziren.

Maria Josefa ederra zen oso eta asko zebiltzan bere atzetik; Auritzko gazte batek, kabalzain edo ganadu zaintzen aritzen zenak, ezkontzeko eskatua zion, baina Maria Josefak ezetza eman. Bertso sortak gazte haren bihotz-mina agertzen du.

Lurraren pian sar nindaiteke, maitia, zure, **ahalgez**,
bortz pentsaketa eginik nago zurekin ezkondu **beharrez**;
borta barnetik zerratu eta beti ganberan **nigarrez**,
pentsamenduan airian eta bihotzetikan **dolorez**,
ene xangrinez hilarazteko sortu zira **arabez**.





DOINUTEGIA

NEURRI BEREZIAK



DOINUA



urratsak
3

Mehetegiko xakurra. *Sei puntukoa*
Baserrian jaio nintzan. *Zortzi puntukoa*
Iparragirre abila dela. *Sei puntukoa. Bi errimako bertsoa*
Aresoarren bandera. *Sei puntukoa*



urratsak
4

Izarren hautsa egun batean. *Hamar puntukoa. Hiru errimako bertsoa*
Horra sei bertso kale. *Bederatzi puntukoa*
Mendian gora haritza. *Sei puntukoa*
XILABARA jina NAUZU. *Sei puntukoa*



MEHETEGIKO XAKURRA



Doinuaren jasotzaileak: Aita Donostia, Nehor et Dufau.

Bertso honen egilea: Gratien Adema "Zalduby" (1828 Senpere - 1907 Baiona, Lapurdi).

Bertsoaren berri

"Xuriko" bertso sortak azaltzen du gaizki zaintzen duten zakurraren bizimodua.

"Zalduby" bertsolariak sorta hau aurkeztu zuen 1867an Anton Abbadiak antolatutako koplarien gudura.

Mehetegiko **xakurra**,
zangoz, errainez **makhurra**.
Berga bat luze **muthurra**,
larrutik hurbil **hezurra**,
urthe guzia **barura**,
zeren zen toki **xuhurra**.





BASERRIAN JAIO NINTZAN



Doinuaren sortzailea: Xabier Lete.

“Habanera” kantua 1990eko Durangoko Liburu Azokan plazaratu zuen.

Bertso honen egilea: Iñaki Murua (1956 Gabiria, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Iñaki Muruak Legazpin (Gipuzkoan) abestu zuen, 1991ko jaialdian.

Hauxe zuen gaia, hiru bertsotarako: “Asko estimatu duzun pertsona betirako joan zaizu”.

Baserrian jaio nintzan
bizitzaren **hegoetan**,
zenbat goza izan dudan
hango zelai **berdeetan**,
lagun haundi bat banuen
oinarri **hastapenetan**,
sarri hartu ninduena
kantari bi **belaunetan**,
joan da gero badakit
zer zinan une **honetan**,
min artetik kantatzen dut
maite zintudan **benetan**,
horrelako gutxi dira
aitortzen zaitut **horretan**,
alkarrekin gabiltz beti
nere **oroitzapenetan**.





IPARRAGIRRE ABILA DELA

Egun, errima aldatzen da tarteko bi puntu motzetan.
Jatorrizko bertsoetan, errima aldatzen zen azken bi puntuetan.

Doinuaren sortzailea: ikertzaile batzuen ustez, Joxe Mari Iparragirre (1820 Urretxu - 1881 Itxaso, Gipuzkoa).
Bertso honen egilea: Juan Frantzisko Petriarena "Xenpelar" (1835 - 1869 Erreterria, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

"Xenpelar Bertsolaria" liburuan (Auspoa, 1969) jasota dagoenez, bertso honen gertaera halaxe izan omen zen: Xenpelar eta Iparragirre Donostiako sagardotegi batean egokitu ziren, eta Iparragirrek esan:

-Etorri nahi al duk nirekin? Nik soinua jo eta hik bertsoak kanta, ederki biziko gaituk!

Xenpelarrek ezetz. Eta Iparragirrek segi:

-Hik beti doinu zaharrear kantatzen dituk bertsoak; ez izan gauza nire doinu berriaz bertsoak egiteko...
hargatik ez duk nirekin etorri nahi!

Eta Xenpelarren erantzuna hauxe izan zen: doinu berriaz (uste denez, Iparragirrek sortua zuen doinu berriaz) bi bertso botatzea. Hauxe da lehen bertsoa.

**Iparragirre abila dela
askori diot **aditzen**,
eskola ona eta musika
hori hoiekin **serbitzen**.
Ni ez nazu **ibiltzen**
kantuz dirua **biltzen**
komeriante **moduan**;
debalde festa preparatzen det
gogua dedan **orduan**.**





ARESOARREN BANDERA



*Doinu mota: Dantzarako doinua ("Zortzikoa").
Doinuaren jasotzaileak: Aita Donostia, J.A. Santesteban.*

Bertsoaren berri

Bertso hauek kantatzen ziren "Ingurutxo" dantzatzeko, Larraungo herri dantzetan (Nafarroan). Bertsoetan Areso eta Leitzaren arteko liskarra azaltzen da.

"Haizak hi mutil mainontzi"


Doinu hau ezaguna da "Haizak hi mutil mainontzi" izeneko bertsoengatik: Xenpelar eta Muxarro bertsolariek, Errenteriako oihal fabriketan, irudikatutako xextragatik.

Aresoarren bandera
ai, nolakoa ote da?
Erakustera eraman dute
erreka aldera
gero leitzarrak bidera
zorionak ematera.
Al zuenak arin joan ziran
igeri egitera.





IZARREN HAUTSA EGUN BATEAN



Jatorrizko bertsoetan zortzi puntukoa zen, lau errimekin.

Doinuen sortzaileak: Mikel Laboa eta Xabier Lete.

Bertso honen egilea: Xabier Lete (1944 Oiartzun - 2010 Donostia, Gipuzkoa).

Poema bakarraz, bi kantu ezagun

“Izarren hautsa” poema Xabier Letek argitaratu zuen “Bigarren poema liburua”-n, 1974an. 1975ean Mikel Laboak kantu bihurtu zuen Leteren poema, “Ikimilikiliklik” ikuskizunean jendaurreratuz (1975-1978). Ostean, Xabier Letek bere poemaz kantu berria egin zuen; “Kantatzera noazu” kasetean jaso zuen (Elkar, 1976). 1980an Mikel Laboak bere bertsoa “Lau / Bost” diskoan grabatu zuen..

Doinua bertso plazara


Bat-batean Igor Elortzak baliatu zuen lehen aldiz Mikel Laboaren doinua, 2009ko Txapelketa Nagusian (Tolosan, Gipuzkoan). Doinua eta errimen erabilera egokitu zituen Elortzak, hamar puntuko bertsoa bihurtuz, hiru errimekin. Leteren poema zortzi puntukoa da, lau errimekin.

Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen **bizigai**,
hauts hartatikan uste gabean
noizpait ginaden gu **ernai**.
Eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu **gabe**:
lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera
gogorki loturik **gaude**.





HORRA SEI BERTSO KALE



Doinuaren sortzailea: J.A. Santesteban.

Bertso honen egilea: Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" (1831 - 1876 Donostia, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

"Zaldi baten bizitza" sortako lehen bertsoa da hau. Bilintxek sortan azaltzen duenez, Donostiako Joxe Mari kale garbitzaileak zaldi zuri bat erabiltzen zuen gurdi garraio; Joxe Marik ez zion jateko askorik emango eta zaldia argala zegoen oso, dena hezur eta azal.


Sorta hau Xabier Leteren ahotsean egin zen ezagun, "200 urtez bertsoan" CD bildumari esker (Elkarlanean, 2001).

Horra sei bertso kale
garbitzaileari
zeina bere izenez
dan **Joxe Mari**
erreza lezazkike
hiru **Ave Mari**
indarra etortzeko
zaldi **zuriari**
animali **hori**
urriki zait **neri**
falta du **ugari**
egoteko **lori**
kartoiakin egina
dala **dirudi (bis)**.





MENDIAN GORA HARITZA



*Doinuen sortzaileak: Imanol eta Mikel Urdangarin.
Bertso honen egilea: Xabier Amuriza (1941 Etxano, Bizkaia).*

Bertsoaren berri

Xabier Amurizak bizitzari jarritako sorta da. Kantua, doinu malenkoniatsuan, Imanol abeslariak plazaratu zuen "Iratze okre geldiak" kasetean (IZ, 1982).


Mikel Urdangarinek doinuari esperantza eta bizipozaren indarra eman zion "Margolaria" CDan (Elkar, 2017).

Mendian gora **haritza**
auntzak haitzean **dabiltza**
itsasoaren arimak dakar
ur gainean **bitsa**.
Kantatu nahi dut **bizitza**
usteltzen ez bazait **hitza**
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa **banintza (bis)**.





XILABARA JINA NAUZU



Doinuaren sortzailea: Jean Etxart.

Bertso honen egilea: Maddi Ane Txoperena (1994 Hendaia, Lapurdi).

Doinuaren berri

Etxahun Iruri bertsolariari (1908 Iruri, Zuberoa - 1979 Pau, Frantzia) eskainitako pastoralerako sortu zuen doinu hau Jean Etxartek. "Bi haur, Etxahun-en hil hobian" da kantuaren izena eta CDan ere argitaratu zen (Agorila, 2001).

Bertsoaren berri

Bertso plazara Maddi Ane Txoperenak ekarri zuen: 2021eko XILABA txapelketan, Maule-Lextarreko finalerdietan, hasierako agurrean.

XILABARA jina nauzu
saio on baten **egitera**
bertso eskolan bezala
ahal dudana **ematera**
baina boz bat entzuten dut
"pasa zaite **finalera**"
eta presioa sarritan
lehia baden **seinale da**
naizena erakusteko
balia nahi dut **aukera**
eta zuekin ez bada
ez dut egin nahi **aurrera. (bis)**

